

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Mundua gelditzen delako

Ostegunean, Martxoaren 8a, planto egite-
ra deituta gaude emakumeak. Gu gabe
mundua gelditzen delako eguneroko la-
na, kontsumoa eta zaintza alde batera
utzikiko ditugu eta kaleak gure eginen di-
tugu. Mugimendu feministak bultzatu-
tako plantoaren helburuen artean emakumeok zain-
tzaren eremuan egiten dugun lana aldarrikatzea eta
sistema kapitalistak horri esker bizirauten duela sala-
tzea daude. Horregatik, grebarako gizonen eskaintako
iradokizunen artean dago emakumeok zaintzaren in-
guruan garatzen ditugun lanak, haurren zaintza, etxe-
ko lanak eta abarrekoak, bereganatzea.

Funtsezkoa deritzot zaintzaren inguruan doan egi-
ten dugun lana borroka feministaren zentroan koka-
tzea, ez baita kasualitatea horrelako lanak emakume-
ok garatu izana mendeetan zehar. Egun eremu
pribatua feminizatuta dago, eta atzera egiten badugu
zaila da aurkitzea garai bat non hori ez den gertatu.
Arrazoia emakumeon biologian kokatu da, zerbait na-
turala balitz bezala, hobeto egiten dugun zerbait. La-
naren banaketaren jatorrira joz, historialariek azaldu
ohi izan dute gizonak ehizan eta bilketan aritzen ziren
bitartean, emakumeak zirela kobazuloetan gelditzen
zirenak haurrak zaintzen, bazkaria prestatzen eta sua
mantentzen. Mendeek aurrera jo ahala banaketa hori
gero eta gehiago nabarmendu zen emakumea eremu
pribatuko lanetara baztertu arte. Baina azken urteota-
ko ikerketek sinesmen hori bertan behera utzi dute,
egun jakin badakigu Paleolitoko emakume eta gizo-
nezkoek lanak partekatzen zituztela eta ehizan eta bil-
ketan emakumeek ere bazihardutela. Gimbuta arkeo-
logoaren arabera horiek gizarte matristikoak ziren,
zeinetan gizon eta emakumeen arteko banaketa difu-
soagoa zen; Ama Lurrari egiten zitzaion kultura eta
protonekazaritzako lurrak guztion artean lantzen zi-
ren. Gizarte horiek gurea baino horizontalagoak zirela
esan dezakegu. Naturarekiko harremana ere bestela-
koa zen; gizon-emakumeok inguruarekin genuen ha-

rremana ez zen esplotazio terminoetan kokatzen,
errespetuan oinarritutako harreman batean baizik.

Neolitikoak eta nekazaritza iraultzak dena aldatu
zuen. Lehen aldiz gure historian, lurrak behar genu-
na baino gehiago sortzen zuen, eszedente horiek on-
dasun bihurtu ziren eta horrekin jabetzaren kontzep-
tua piztu zen. Jabetza horrek besteengandik banatu
gintuen, bestea erasotzaile moduan ikusi genuen, he-
rrietan harresiak eraiki genituen eta gudak nonahi
piztu ziren. Naturaren parte izatetik natura esplota-
tzera pasa ginen. Emakume eta gizonen arteko dikoto-
mia ere areagotu egin zen; haurrak eskulana ziren
heinean, emakumeen esku zen haurren jabetza kon-
trolatzea ezinbestekoa egin zen sistema kapitalista
jaioberriko gizonentzat, eta, horregatik, emakumeen
sexualitatea kontrolatzeko diskurtsoak jaio ziren (de-
bekuak, zigorrak eta bekatuaren kontzeptua bera esa-
te baterako). Eta noski, gutxi batzuek lortzen zituzten
etekinak gero eta handiagoak izateko, zaintzari lotuta-
ko lanak emakumeok garatu behar zituzten soldatarik
jaso gabe. Horrekin batera Ama Lurraren kultura alde
batera utzi genuen eta izarrei eta Eguzkiari, jaungoiko
maskulinoei, begira jarri ginen, gizarte teozentrikoak
sortuz.

**Gizarte patriarkala eta kapitalista eskutik jaio ziren
eta ordutik euren arteko harremana perfektua eta
ezin eraginkorragoa izan dela esan dezakegu.** Gutxi
batzuen pribilegioak eta aberastasuna etengabe han-
ditu diren artean, hierarkia horren azpian kokatuta-
koak gero eta zapalduago daude. Horregatik, Martxo-
aren 8ko deialdiak, besteak beste, lan feminizatuetan
eta zaintzaren inguruan kokaturiko betebeharretan
jarri du argia, gizonen horietara hurbiltzeko gonbita
eginez. Sistema honekin apurtu nahi badugu, gizarte
horizontal eta justuago bat sortu, zerbait aldatu beha-
rrean gaude. Sistemaren pieza baten funtzionamen-
dua biratzea lortzen badugu, agian makinak berak ere
beste norabide bat hartzea lortuko dugu. •

Aditu batzuen arabera, Paleolitoko gizarteak matristikoak ziren;
gizonen eta emakumeen arteko banaketa difusoagoa zen